

1. SARRERA

Oikos (etxea) eta logos (jakintza). Greziera zaharreko bi hitz horien elkarketa “ekologia” hitza da: etxearen gaineko jakintza, izaki bizidunen eta ingurunearen arteko eta izaki bizidunen arteko iraganeko, egungo eta etorkizuneko harremanak aztertzen dituen zientzia. Alde horretatik, gizakiok izaki bizidunak gara; are, nahiko izaki bizidun bitxiak gara, ingurunea aldatu eta gure beharrei erantzuteko ahalmen handia dugunez gero. Hartara, elkarren artean eta gizakion eta gainerako izaki bizidunen eta materia bizigabearen artean sortzen diren harremanak boterezko harremanak dira oro har, eta naturak berezkoa duen oreka hauskorra hautsi dezakete.

Mugimendu ekologistak horren guztiaren ondorioz sortu dira. Askotarikoak dira, hala borroka eta lan egiteko moduari, nola lan esparruei eta helburuei dagokienez, eta bilakatu egin dira historian barrena. Hala eta guztiz ere, esan liteke guztiak bat datozela euren helburu nagusian: aipatu dugun oreka naturalari eustea.

Aztertzen ari garen gaia Euskal Herriko mugimendu ekologistek euskal curriculumari euren esperientzia praktikoari eta ekologia arloko euren ezagutzari esker egin diezaioketen ekarpena da.

Curriculumarekin bat, hezkuntzaren helburuak gizarteko eta banakako izaki bizidun gisa ahalik eta gaitasun gehien lantzea izan behar du. Hortaz, *zein gaitasun landu nahi ditugu hezkuntza formalaren bitartez etorkizuneko belaunaldiak mugimendu ekologistak helburu dituen oreka ekologikoa eta soziala berma ditzaten?*

2. EKOLOGIA ETA HEZKUNTZA SISTEMA: INGURUMEN HEZKUNTZA

Ekologiak hezkuntza sistema formalean izan duen presentzia aztertuz gero, hiru garai edo aro bereizten dira.

Hasiera batean, ekologia inguruan ditugun natur inguruneen ezaugarrien berri izatera mugatzen zen. Ondoren, sakondu eta, natur ingurumena ez ezik, natur inguruneen arteko harremanak ere (ekologia zientzia) jorratzen ziren. Azkenik, gizarteak ingurumen arazoak Lurra suntsitzen ari direlako kontzientzia hartu zuen, eta kontzientzia hori hezkuntza arloko ekintza bihurtu zuen, arazoari aurre egite aldera; ingurumen hezkuntza sortu zen orduan.

XX. mendeko lehen hiru laurdenetan, ingurumen hezkuntzak kontserbazionismoan (naturaren babesean, natura hautemateko moduan eta naturaren edertasunean) jarri zuen arreta. Ingurumen arazoekin bat, ordea, jarrera hori aldatu egin zen. 1960ko hamarkada eta 1970eko hamarkada oso emankorrak izan ziren ingurumen arloan, gizarte mugimendu sendoak sortzeaz gain, sareak osatu ere egin zirelako nazioartean. Gizartearen joera horien harira, elkarteak ere sortu ziren, eta horiexek finkatu zuten gaur egun ingurumen hezkuntzatzat duguna.

Ingurumen hezkuntza zeharkako ildoak da Euskal Herriko hezkuntza sistema formalaren barruan, eta ikastetxe bakoitzeko curriculumaren, ikastetxe bakoitzaren ahaleginaren eta administrazioek ikastetxeen esku jartzen dituzten baliabideen arabera lantzen da neurri batean edo bestean.

Eragile nagusiak hezkuntza eragileak eurak, administrazioak eta hezkuntzaren eta ingurumen kudeaketaren alorreko enpresak dira.

Azken urteotan, zalantza sortzen ari da administrazio publikoek garapen iraunkorraren alorrean aplikatzen dituzten politiken harira. Izan ere, ingurumen hezkuntza eta ingurumen hezkuntzaren edukiak eta helburuak direla-eta, mugimendu ekologistaren zati batek salatzen du pertsonen

ohitura jakin batzuk (baliabideak aurrezteak, hondakinak birziklatzea, etab.) aldatzea bultzatzen dutela praktikan baina pertsonak ez dutela planteatzen euren bizimoduaren baliozkotasuna eta administrazio publikoak eta pribatuak haren alde egiten dituzten ekintzen zilegatasuna.

3. EKOLOGIA ETA EUSKAL CURRICULUMA

Nahitaezko eskola aldirako euskal curriculumari buruzko esparru dokumentuko alderdi asko eta asko mugimendu ekologistaren lan esparruari buruzkoak dira: natura eta nortasuna, elikagaiak eskuratzea, lehengaiak eta babesak...

Ildo horretan, ekologia arloko hainbat eremutan aritzen diren pertsonen ustez, zein dira pertsona batek nahitaezko eskola aldian barneratu behar dituen balioak, kontzeptuak eta prozedurak?

16 urte dituela, pertsona batek...

Kontzeptuak

- gizarte eta natur ingurunea elkarri lotuta dauden osotasuntzat hartu beharko lituzke;
- hazkunde ereduak bakoitzak dakartzan ondorioekin lotu beharko lituzke;
- gaur egun nagusi den sistema ekonomikoak munduan sortzen dituen desberdintasunak eta desberdintasun horiek ingurumenean dituzten ondorioak ulertu beharko lituzke;
- Euskal Herriak ingurumen arloan dituen arazo nagusien, arazoon zioen eta ondorioen eta arazook konpontzen esku hartzen duten eragileak berri izan beharko luke;
- “ekosistema” kontzeptua gizartean aplikatzen jakin eta lehengai eta hondakin emarien berri izan beharko luke;
- Euskal Herriko ekosistemen, ekosistema horien berezitasunen eta ekosistema horietan bizi diren landare eta animalia nagusien ezaugarrien berri izan beharko luke;
- gizakia ekosistemako kide gisa hartu beharko luke;
- historian Euskal Herriko gizakiaren eta ingurunearen artean izan den harremanaren berri izan beharko luke;
- natur baliabideen zikloak (bai gizakiak eragindakoak, bai gizakiak eragin gabek) zein diren jakin beharko luke;
- ingurumena nolabait babesten duten taldeen, erakundearen eta administrazioen berri izan beharko luke;
- kontsumitzaile arduratsu gisara jokatzeko ezagutzak menderatu beharko lituzke;
- bizi maila eta bizi kalitatea bereizi beharko lituzke;
- prozesu biologiko eta geologiko nagusien berri izan beharko luke;
- osasuntsu bizitzeko oinarrien berri izan beharko luke;
- Euskal Herriko egitura sozialaren eta ekonomikoaren berri izan eta egitura horrek natur ingurunearekin duen harremana ulertu beharko luke;
- eta “elikadura arloko burujabetza” kontzeptua ulertu beharko luke.

Prozedurak

- gure ingurunea ohartuki babesteko bitartekoak (hala intelektualak, nola emotiboak) izan beharko lituzke;
- natur ingurumenean beldurrik eta arbuirik gabe eta desorekarik eragin gabe ibiltzen jakin beharko luke;
- informazioa kritikoki bilatzen jakin beharko luke;
- lekuzko irudikapen oinarrikoak interpretatzen jakin beharko luke;

- besterekin baldintza bertsuetan erlazionatzeko gaitasun sozialak menderatu beharko lituzke;
- gatatzak aldatzeko aukeratzat onartu eta haiei aurre egiten jakin beharko luke;
- norbere ideiak eta sentimenduak lotsarik gabe adierazten jakin beharko luke;
- aisialdia administratzeko gaitasuna izan beharko luke;
- testuak kritikoki interpretatu eta sintetizatu eta ondorioak ateratzen jakin beharko luke;
- ideiak gauzatu eta proiektuak eta jarduerak lantzeko sormena izan beharko luke;
- plangintza, jarraipen, ebaluazio, hobekuntza, salaketa eta informazio ekintzak egiteko gai izan beharko luke;
- eta parte hartzea helburuak lortzeko taldekako metodoa dela jakin beharko luke.

Jarrerak eta balioak

- natur ingurunea maitatu eta errespetatu beharko luke;
- naturaz gozatu beharko luke;
- natur ingurunea babestu beharreko balioetat hartu beharko luke;
- solidarioa izan beharko luke;
- bidegabekeria eta desoreka egoerei aurre egin nahi izan beharko lieke;
- “justizia” eta “gizarte aldaketa” kontzeptuak ulertu beharko lituzke eta bata zein bestea lortzeko motibazioa izan beharko luke;
- natur, kultur, hizkuntz, arte eta gizarte ondasunak balioesten jakin beharko luke;
- taldearen garrantzia norbere nortasun ezaugarriak mantentzen dituen aldi berean onartu beharko luke;
- benetan zer nahi duen eta zerk sentiarazten duen ongi eta inguruneak (publizitateak, komunikabideek, familiak, eta abarrek) zer nahi izan dezan nahi duen bereizten jakiteko gaitasun kritikoa izan beharko luke;
- jarrera positiboa izan beharko luke bizitza eta beste direla eta;
- eta aniztasun kulturala eta ideologikoa errespetatu eta norbere burua aberasteko bidetzat hartu beharko luke.